



OGP EUSKADI 2021-2024: 1. KONPROMISOA

Lantegia

Donostia, 2022ko irailaren 29a



Aurkibidea

Aurkezpena³


Helburuak⁴

Parte-hartzaileak 5

Quim Bruguéren txostena: gakoetako batzuk..... 6

Lan saioa: emaitzak..... 7

Hurrengo urratsak¹²



Aurkezpena

Dokumentu honetan, Donostian, 2022ko irailaren 29an, 10:00etatik 13:00etara, egindako bileraren xehetasunak eta emaitzak jasotzen dira. Gobernu Irekirako Aliantzaren (OGP) 1. Konpromisoaren esparruan egindako lana da, hau izanik lehen konpromiso horren izenburua: **“COVID 19ren eragina eta erakundeek hiritarrari zuzentzen dizkioten zerbitzuen egokitzapena”**.

Hasierako izendapen horren azpian, **1. konpromisoak** begirada zabaltzea nahi du. Eta, COVID-19ak eragindako krisiaz harago, etortzekoak diren eta identifikatzen zailak diren krisietan zentratzen du bere lana; krisi horiek behar bezala interpretatzen ez ditugun seinaleak bidaltzen dituzte, eta, seinale horiek lehertzen direnean, agerian jartzen dituzte, bat-batean, beren ondorio katastrofikoak, eta azkar hedatzen dira mundu globalean.

Hala, 1. konpromisoaren helburua da krisi-mota horien **adierazle espezifiko eta ikuspegi handikoak identifikatzea**. Lehendik dauden agente-taula globalekin koherenteak diren adierazleak, eta lurralde-eremu jakin baten egoera eta haren inpaktua ezagutzea ahalbidetzen dutenak; eta, era berean, eremu desberdinek hartzen dituzten neurrien eragina monitorizatzeko aukera ematen dutenak.

Esparru horretan, **Donostiako Udala lan-jardunaldi horren anfitrioia izan da. 21 lagun bildu dira**, hainbat eremutakoak (komunitarioa, soziala, ekonomikoa, instituzionala), gaiari buruz gogoeta egiteko eta hitz egiteko.



Helburuak

Lan-jardunaldi horren bidez, **Donostiako Udalak hainbat eragile biltzeko eta gogoeta egiteko gune bat sortu nahi izan du**, COVID-19aren krisian funtsezko esparruetan erabakiak hartu eta jardun behar izan dutenak. Esparru horiek garrantzitsuak izan daitezke etorkizuneko krisietan.

Zehazki, hainbat begirada eta bizipen oinarri hartuta, jardunaldian honako hauetan jarri nahi izan da arreta:

- Ikaskuntzak partekatzea.
- Zailtasunak eta trabatze-mementoak azaltzea.
- Etorkizunari begira zaindu beharreko funtsezko alderdiak identifikatzea.

Horretarako, Donostiako Udalak topaketa bat sortu du, **bi memento bereizi dituena**:

- **Hasierako mementoa, testuinguruan jartzekoa.** Fase honetan, Quim Brugué bere hausnarketak partekatu ditu, «Nahasmendutik erantzun» izenburupekoak.
- **Bigarren memento bat, taldean lan egiteko eta gogoeta egiteko 3 gai hauen inguruan:**
 - Zer erakutsi digu esperientziak horrelako testuinguruetan erabakiak hartzen laguntzen diguna?
 - Non daude trabatzeak?
 - Etorkizuneko krisiei begira, zer iruditzen zaigu funtsezkoena? Zer hiru alderdi edo elementu hasi beharko genituzke lantzen, hobeto prestatuta egoteko?

Parte-hartzaileen arteko gogoeta eta elkarrizketa horiei esker, ikaskuntzak, zailtasunak eta erronkak partekatu eta trukatu ahal izan dira, eta, hala, 1. konpromisoan egin beharreko lanerako, **balio-ezagutza sortu da taldean**, aurrerago zehazten den moduan.

Parte-hartzaileak

Donostiako Udalak 26 pertsona gonbidatu ditu topaketara, hainbat eremutakoak –erakundeak, komunitateak eta eremu soziala eta ekonomikoa– eta maila anitzekoak –tokikoak eta lurraldekoak–. Azkenik, **21 pertsonak parte hartu dute** –13 emakume eta 8 gizon–, **profil desberdinekoak**:

EREMUA	PERTSONA	ERAKUNDEA	KARGUA
Segurtasuna/Herri Babesa	Eli Arrillaga	Donostiako Udala	Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamendu Zerb./Zuzendaria
Gizarte-hauskortasuna	Gari Agote	Donostiako Udala	Gizarte-Ekintza/Zuzendaria
Lidergoa/Koordinazioa/ Zeharkakotasuna	Edorta Azpiazu	Donostiako Udala	Zeharkako zerbitzuak/Koordinatzailea
Ingurumena/Energia/Klima	Josu Benaito	Donostiako Udala	Osasuna eta Ingurumena/Zuzendaria
Kultura	Jaime Otamendi	Donostiako Udala	Donostia Kultura/Zuzendaria
Datuak	Ibon Ramos	Donostiako Udala	IUU, Zerbitzuaren burua
Herritarrak	Amaia Agirreolea	Donostiako Udala	Herri Partaidetza eta Arreta Zerbitzua/Zerbitzuaren burua
Antolamendua	Santxo Leizaola	Donostiako Udala	Antolamendu eta Kalitate Zerbitzua/Zerbitzuaren burua
Ukrainako krisia/Osasuna sustatzea	Sorkunde Jaca	Donostiako Udala	Osasuna Sustatzea/Teknikaria
Finantzaketa/Kontratazioa	Kepa Ugartemendia	Donostiako Udala	Ekonomia Kudeaketa/Zuzendaria
Gobernantza	Manu Narvaez	Donostiako Udala	Lehendakaritza/Zuzendaritza
Zeharkakotasuna/Bizi-zikloa	Eva Salaberria	Donostiako Udala	Lehendakaritza/Zeharkakotasunaren arduraduna
Herri partaidetza	Olatz Dañobeitia	Gipuzkoako Foru Aldundia	Partaidetza Zerbitzua/Teknikaria
Komunikazioa	Arantza Zugasti	Eusko Jaurlaritza	Komunikazioa
Komunikazioa	Begoña Cabaleiro	Emaus	Komunikazioa
Azpiegitura Digitala	Cristina Martin	Vicomtech	Gizarte Zerbitzuen sektorerara aplikatutako Teknologia Digitalak/Arduraduna
Logistika eta Hornikuntza	Estibaliz Goyenechea	COFG	Idazkaritza Teknikoa
Hirugarren Sektorea	Maider Makazaga	DYA Gipuzkoa	Gerentea
Hirugarren Sektorea	Elena Luquin	Gipuzkoako Gurutze Gorria	Gizarteratzeko zuzendaria
Hirugarren Sektorea	Mabel Cenizo	Caritas	
Emozioen Kudeaketa	Maribel Pizarro	Esperantzaren Telefonoa	Zuzendaria

Oharra: Azkenean honako hauek ez dira etorri bilerara: Amagoia Ibarrondo eta Iraide Gaztelu, Bilboko Udalekoak; Aitor Sancho, Berritzeguneko; Ana Molina, Mestiza elkarteak, eta M^a Aranzazu Otaolea, Bilboko Emakumearen Kontseiluko.

Bestalde, saioan, taldeak Quim Bruguéren eta errazte-taldearen laguntza izan du.



Quim Bruguéren azalpena: gakoetako batzuk

Quim Brugué Ekonomia Zientzietako lizentziatua da (Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa), Gizarte Zientzietarako Datuen Analisisiko diplomatua (Essex University) eta Politika eta Administrazio Zientzietako doktorea (Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa).

“Nahasmendutik erantzun” izenburupean, Quimek gako batzuk partekatu ditu taldearekin, bi arazo nagusi hauei erantzuteko baliagarri direnak: erabakiak hartzeko orduan nola jokatu, batetik, eta, bestetik, gure gizarteak dituen erronkei erantzunak bilatzea, kontuan hartuta bizi garen testuinguruetan konplexutasuna eta ziurgabetasuna direla nagusi. Gaur egungo egoeretan, kontua da ezjakintasunetik abiatzen garela eta zalantzek menderatzen gaituztela. Quimen esku-hartzeak lagundu du parte-hartzaileek gero egin duten hausnarketa elikatzen.

Labur-labur, honako hauek izan dira azaldutako indar-ideietako batzuk:


- **Hasteko, izenburua aipatu behar da: «Nahasmendutik erantzun».** Izenburu honek, nahita, azpimarratzen du, krisi-testuinguruetan, «EZ DAKIT/EZ DAKIGU» dela kokatuta gauden lekua eta horretan oinarritu behar dugula erantzuna emateko: leku deserosoa da, eta han beharrezkoa da segurtasunik ezari, beldurrari, huts egiteko eskubideari eta akatsari eustea. Era berean, leku horretatik (*aukerak ere ematen dizkigun leku horretatik*) hainbat eragilerekin sarean ikasteko esparruak eta prozesuak sor daitezke, konfiantzak sortuz, interdependentzian eta banatutako lidergoetan oinarrituta.
- **Krisi-egoeren kaosaren, ziurgabetasunaren, aldakortasunaren eta konplexutasunaren aurrean, funtsezkoa da ikuspegi desberdinak aintzakotzat hartzen dituzten elkarriketak sortzea.** Quimek adibide zehatzak eman ditu, konplexutasun eta krisi egoeretan ezagutza teknikoa –zer egin behar den jakitea– ez dela nahikoa erakusten dutenak: itxurazkoa baino ez den segurtasuna sortzen du. Horregatik, begiraden aniztasuna, argudioen trukea eta perspektiben batura presente dituzten eta aintzat hartzen dituzten esparruak eta elkarriketak sortu

behar ditugu. Erabakitzeko esparruak eta egiteko esparruak konbinatu behar ditugu. Eta horri guztiari beste osagai batzuk erantsi, hala nola hitz egiteko denbora, ezagutzekoa eta besteak ezagutzekoa.

- **Erakunde publikoak oso zentratuta egon dira eraginkortasuna lortzeko lanean; hau da, arreta handiagoa jarri diogu gauzak egiteko moduari, eta ez hainbeste egiten ari garenari.** Kudeaketa publikoa orokortzeko prozesuek berekin ekarri dute zerbitzuak hobetzea, eta paradoxikoki, politika publikoen porrota ere bai, gizarte hobea lortzeko duten benetako eraginari dagokionez. Azken krisiek erakutsi digute eraginkortasuna ez dela nahikoa; beharrezkoa dela egiten ditugun gauzei ematea garrantzia, eta ez hainbeste gauzak egiteko moduari; hau da, eraginkortasunetik adimenera igaro behar dugu.
- **Gaur egun, "arazo madarikatuak" ditugu, erantzun demokratizatu adimentsuak eskatzen dituztenak.** Egoeren eta arazoen konplexutasunari heltzeko, beharrezkoa da interdependentzia onartzea, gure artean hitz egitea, hauskorra den kokaleku batetik hitz egitea eta desadostasunari lekua ematea. Sarean ikasteko testuinguruak eta prozesuak sortu behar ditugu, bai eta erabakiak hartzeko esparruak ere, eta haietan erantzun orekatsuak eraikitzen saiatu. Azken batean, guztion artean politika publiko demokratizatuak eraiki behar ditugu, gogoan izanik dakiten erakundeetatik ikasten duten erakundeetara igarotzeak deserosotasuna eta segurtasunik eza sortzen dituela.
- **Prozesu horretan, abiapuntua garrantzitsua da: zer erakunde-mota gara: inguruarekiko harremanetara itxia edo irekia?** Azken krisiek erakutsi digutenez, beren ingurunea hobeto ezagutzen zuten erakundeek, ingurune horrekin eta eragileekin lotura handiagoa zutenek eta harreman eta interakzio sare sendoa zutenek erantzunak azkarrago eta eraginkortasun handiagoz artikulatu ahal izan zituzten.



ETORKIZUNEKO
KRISI-EGDEREN aurkean,
ZER LANDU BEHARKO GENUKE?




manu. plaza. elena. kepa. ibon. josu. garikotz. santxo. amara. jaime. eli. edorta. oantza. maider. begonia. estibaliz. maikel. mabel. sokoluh. en. ariam

Lan saioa: emaitzak

Quim Brugué emandako gakoak entzun ondoren, parte-hartzaileak hiru lantaldetan banatu dira, honako gai hauei buruz hitz egiteko:

- Pertsona bakoitzaren esperientziatik abiatuta, zerk laguntzen du horrelako krisi-testuinguruetan erabakiak hartzen?
- Non daude trabatzeak?
- Etorkizuneko krisiei begira, zer iruditzen zaigu funtsezkoena? Zer 3 alderdi edo elementu hasi beharko genituzke lantzen jada, hobeto prestatuta egoteko?

Ondoren, kide guztien aurrean, talde guztiek beren gogoetak partekatu dituzte. Horien guztien baturak emaitza kolektiboen argazki hau eman du.



1 Zerk laguntzen du horrelako krisi-testuinguruetan erabakiak hartzen: zer dakigu jada horri buruz?

Badakigu honako hauek laguntzen dutela:

- Informazioa eta ezagutza izatea.
- Gure indarguneak zein diren oso ondo jakitea.
- “Ondo koipeztatuta” edukitzea harreman eta kontaktu sare bat: elkar ezagutzea eta geure burua ezagutzea. Zein da gure komunitatea?
- Zeinek zer egiten duen jakitea: erakundeen eta entitateen artean zereginen banaketa malgua izatea.
- Gardentasuna: beharrak eta konpondu beharreko arazoak argi erakustea eta komunikatzea.
- Baliabide ekonomikoak izatea.
- Erabakiak hartzeko eremu irekiak izatea.
- Erabaki azkarrak hartzea ahalbidetzea, adibidez, denboran zehar mantendu diren esparru juridiko bereziak irekiz.
- Oro har, trebatuta eta prestatuta egotea, eta baliabide gutxirekin lan egiteko prest egotea.
- Bizi garen gizartearen tamaina: hurbiltasuna.



2 Non daude trabatzeak?

Hemen aurkitzen ditugu trabatzeak:

- Guztion beldurren kudeaketa. Shock-egoera bat da, eta azkar jardun behar da.
- Ez aitortzea besteak ere zerbait (baliagarria) egin dezakeela.
- Hirugarren sektorearen eta administrazioaren arteko koordinazio-gunerik eza.
- Erakundeekiko harremanetan kontua nori dagokion edo nork duen ardura ez jakitea.
- Konpartimentuetan zatitutako lana.
- Burokrazia eta arautegi ez oso malguak.
- Informazioa kudeatzeko baliabiderik eza.
- Baliabideak mugatzea: Zer sakrifikatu behar da? Zerk du lehentasuna? Nola jakinarazi gizarteari?
- Komunikabideekiko harremana.
- Komunikazioa: barrura begira eta kanpora begira.
- Administrazio digitala.
- Lidergorik eta politika publikoen definiziorik eza.



3 Etorkizuneko krisiei begira, zer iruditzen zaigu funtsezkoa?

Honako alderdi hauek dira funtsezkoak, gure ustez:

- Pertsonen, eragileen eta erakundeen arteko harremanetan arreta eta intentzioa jartzea... Harremanak eta harreman-sarea zaintzea.
- Lasta botatzea eta nagikeria alde batera uztea. Egin aurretik, pentsatzea: Zentzurik al du egiten ari garenak? Ausartak izatea.
- Geure burua zalantzan jartzeko, gure helburuarekin konektatzeko eta helburu hori esplizituki azaltzeko denbora hartzea. (Helburu hori, kasu askotan, zerbitzu-emaile hutsak izatetik harago doa).
- Erabakien autonomia sustatzea, komunitatea sortzen duen helburu partekatu bat identifikatzetik abiatuta; ondoren, helburu hori herritarrei jakinaraztea.
- Krisiei aurre egiteko lantaldeak aurreikustea eta edukitzea udal-arlo guztietan.
- Erakunde arteko datu-baseak eta informazioa konektatzea, dauzkagun datuak eta ezagutza-sistemak optimizatu ahal izateko.
- Erakunde publikoen kasuan, eta etorkizuna aurreikusten saiatzen den ikuspegi batetik, gehiago integratzea "zer" diseinatzeaz arduratzen diren sailak (eta ez soilik "nola" diseinatzeaz arduratzen direnak).
- Azkenik, ohar bat: etorkizuneko ustekabeko krisiei erantzuteko funtsezkoa denari buruz hausnartzen ari gara, baina zein da gure jarrera dagoeneko hemen dagoen eta denboran irauten duen krisi baten aurrean, hau da, ingurumen eta klima arloko krisiaren aurrean?





Hurrengo urratsak

Lantegian emandako 3 orduei esker, gaiari hurbildu ahal izan gara eta lehen emaitza baliotsuak lortu ditugu. Hala ere, sentsazio orokorra da gai hau garrantzi handikoa dela. Iritzi partekatuaren arabera, denbora gehiago behar da, eztabaidetan eta elkarrizketetan sakontzeko.

Jardunaldiaren antolatzaileek kontuan hartu dute iritzi hori, eta lanari jarraipena ematea erabaki dute, bi norabide hauetan:

- OGP Euskadi -1. konpromisoaren plangintza eta mugarriak aurrera eramatea, informazioa kudeatzeko adierazleen definizio teknikoa eta agente-taulekin eta erabakiak hartzeko tresnekin lotutako gaiak gehiago landuz.
- Lantegi honetan egindako gogoetari jarraipena ematea, eta lanean elkarrekin sakontzeko esparruak sortzea, etorkizunean ustekabeen gerta daitezkeen krisien tokiko kudeaketan kontuan hartu beharreko irizpideak diseinatze eta definitze aldera.

Donostiako Udaleko Lehendakaritza Zuzendaritzak aurrerapenen berri emango dizue.